



**AGINDUA, SEGURTASUN SAILBURUARENA, EUSKAL HERRIKO
POLIZIARI BURUZKO LEGEA BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO
LEGE-AURREPROIEKTUAREN PROZEDURARI HASIERA EMATEA
ERABAKITZEN DUENA**

Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako aurreikusita duen lege-egutegiaren barruan Euskal Herriko Poliziari buruzko legea bosgarren aldiz aldatzeko Lege-aurreproiektua izapidetzea dago.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak (4/1992 Legea, uztailaren 17koa) hainbat aldaketa izan du urte hauetan guztietan, dela Ertzaintzako funtzionarioen ordainsarien araubideari eragiten diotenak dela Ertzaintzako langileen ordezkari-taldekari edo funtzionarioen sailkapen-taldekari eragiten diotenak. Hala, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legeak -15/2012 Legea, ekainaren 28koa- Euskal Herriko Poliziari Buruzko Legea laugarren aldiz aldatzea ekarri zuen. Lege hori indarrean sartzeaz batera, ordura arte Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean arautzen ziren eta segurtasun publikoari eragiten zioten zenbait alderdi polizia-legetik atera eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legean araututa egotera pasa ziren, besteak beste honako hauek: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren araubideari dagozkion zenbait alderdi, poliziaren azpi-sistemari dagozkion beste zenbait alderdi edota herritarren segurtasunari dagozkion beste hainbat. Izan ere, alderdi horiek guztiak antolamendu-izaera zuten eta egoki iritzi zitaion aurrerantzean segurtasun publikoaren sistema antolatzeko legean arautzea. Beste horrenbeste gertatu zen udaltzaingoak koordinatzeko ahalgoarekin edo polizien arteko lankidetzaren mekanismoekin. Hori dela eta, gaur egun, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak Euskal Herriko polizia-kidegoen araubidearekin lotutako gaiak arautzen ditu, batik bat.

Aztergai dugun lege-aurreproiektuak zati batean aldatu nahi du Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea azken urteotan Estatuan zein gainerako autonomia-erkidegoetan onetsitako legeetan jasotako berrikuntzak gure legean ere jasota gera daitezkeen, edota indarrean diren arauen aplikazioan metatutako eskarmentua nahiz arau horiek interpretatzean epaitegiek finkatutako jurisprudentzia gure legera ere ekartzeko. Horrez gain, legea Ertzaintzaren modernizazio-prozesuetara ere egokitu beharra zegoela iritzi zaio, baita azken urteotan Euskal Udalerrien Ekartearekin (EUDEL) sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan eraturako lantaldeen jardunaren emaitzetara ere.

Lege hau izapidetzeko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legean (8/2003 Legea, abenduaren 22koa) ezarritako irizpideak jarraituko dira, baita 2010eko abenduaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiz adostutakoak ere, Xedapen Orokorrak egiteko jarraibideak onartzen dituenak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 4.1 artikulua zehazten duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da, eta testu hori izango da araua izapidetzeko prozeduraren oinarri eta ardatz.

Beraz, hasierako aginduaren gutxieneko eduki hori zehazten duen Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legeko 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Xedea, eta prozedurari hasiera emateko eskumena.

1.- Agindu honen xedea da Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzeko Lege-aurreproiektua izapidetzeko prozedurari hasiera ematea.

2.- Prozedurari hasiera emateko eskumenari dagokionez, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 4.1 artikulua zehazten du xedapen orokorrek egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela.

BIGARRENA.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 17. artikulua (3/1979 Legea, abenduaren 18koa) Euskal Herriko erakundeei atxikitzen die autonomia-lurraldean gizakien eta ondasunen babeserako eta herri-bakea zaintzeko Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea.

Bestalde, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, Segurtasun Sailari atxikitzen dizkio, besteak beste, honako egiteko eta jardun-arlo hauek: jokoa, posturak eta ikuskizunak, eta Autonomia Erkidegoko Polizia.

Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko Dekretuaren (194/2013 Dekretua, apirilaren 9koa) 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Segurtasuneko sailburuari dagokio Jaurjaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan xedatutako eskumenak eta ahalmenak betetzea, baita Sailaren berezko egitekoen eta jardun-arloen eremuan indarreko legeriak esleitzen dizkionak ere, abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua aintzat harturik.

HIRUGARRENA.- Lege-aurreproiektuaren xedea eta helburua.

Lege-aurreproiektuak indarreko Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen zenbait artikulua aldatzen du Euskal Herriko Polizia tresna hobeez hornitzeko eta poliziak haren egitekoak modu hobean burutu ahal izateko, hain zuzen ere egiteko horiek euskal gizartearen moduko gizarte ireki, anitz eta elebidun batek galdatzen dion moduan burutu ahal izateko.

Horretarako, legearen xedeen artean, Polizia sortu zeneko hasierako ideia hartan sakontzea dago, alegia herritarrei zerbitzu ematean eta herritarren aurrean erantzuteko betebeharrean, baita printzipio horiek Deontologia Kodean jasotzea ere Poliziaren Etika

Kode Europarrak ezarritako baldintzetan. Era berean, kexak artatzeko eta polizia-zerbitzua ebaluatzeko eta hobetzeko mekanismoak ezarri nahi dira, adibidez kanpo kontrolerako batzorde bat eratzea.

Eraberritze-ildo horretan, beste aldaketa bat da jardun polizial onen sistema sendotzeko pizgarriak ematea. Horretarako, funtzionarioen lanbide-karrera arautuko da, lanbide-karrerari dagozkion osagarriak egindako lanari lotuko zaizkio, eta kondekorazio eta sarien sistema arautuko da. Aldi berean, diziplina-araubidean aldaketak sartuko dira eta barne mekanismo eragingarriak, proportzionalak, egokiak eta bidezkoak ezarriko dira, diziplinarik gabeko jokabide zehatzen azterketa hutsa egitetik arrisku-eredu orokorrak aztertzeraino. Horrekin, hobekuntzak sartu nahi dira bai prestakuntzaren arloan bai prozeduretan nahiz laneko giroan.

Hautaketa arloan, zehaztu egiten da Polizia eta Larrialdien Euskal Akademia izango dela Poliziara sartzeko hautaketa-organo eskuduna eta iraunkorra, eta sendotu egiten dira hautaketa-epaimahaien inpartzialtasun-, profesionaltasun- eta espezialitate-bermeak. Legean jasotzen dira baita Poliziara sartzeko betekizunak, eta emakumeen aldeko ekintza positiboak aurreikusten dira polizia-kidegoetara emakume gehiago sar dadin, emakumeek egun duten presentzia urria zuzenduz joateko. Horretarako, emakumeen presentzia sustatzeko planak bultzatuko dira polizia-kidegoetan, hain zuzen ere polizia-kidegoetara sartzeko eta barruan daudela lanbide-karrera garatzeko aukera-berdintasuna dutela bermatzeko. Azken batean, bilatzen dena da emakumeek polizia-kidegoetan duten ordezkari urriarekin amaitzen joatea eta Poliziaren eragingarritasuna areagotzea, beti ere Europako Batasuneko jurisprudentziak finkatutako irizpideekin bateragarria den modu batean.

Lege-aurreproiektuak funtzionarioek lanbide-karrera garatzeari begira izan litzaketen igurikimenak hobetzea ahalbidetzen duten alderdiak aldatuko ditu ere bai.

Lanpostuak betetzeko mugikortasun bertikalari dagokionez, ezagutza zehatzak egiaztatzea galdatzen duten eginbeharren kasuan, Ertzaintzako espezialitate-araubidea legez jasota egongo da, eta goiko eskalako lanpostu guztietara aurkeztu ahal izatea ahalbidetuko da lanpostuak betetzeko prozedura arrunten bidez.

Barne sustapenari dagokionez, berriz, ezabatu egiten da prozedura horietan parte hartu ahal izateko hiru deialdiko muga, eta, era berean, barne-sustapenerako eskubidea ahalbidetuko zaie seme-alabak eta senideak zaintzeagatik, genero-indarkeria pairatzeagatik edo zerbitzu bereziagatik eszedentzian daudenei.

Halaber, lanbide-karrera horizontala arautuko da. Gradu profesionalean gora egiteko ez da lanpostuz aldatu beharrik egongo, eta ordainsarien egituraketa ere aldatuko da ordainsari osagarrien artean lanbide-karreragatiko osagarria jasotzeko.

Funtzionarioen eskubide indibidualei gagozkiela, arreta berezia jarri behar zaio Euskal Herriko Polizia Kidegoen babes sozialari, dela oinarrizkoari zein osagarriari. Hori dela eta, arreta berezia jartzen da langileen baldintza psikofisikoak zaintzeko administrazioaren ardurari, baita lan-osasuna eta laneko arriskuak prebenitzeko ardurari ere. Horretarako, legearen aldaketak babes sozial osagarriko mekanismoak aurreikusten ditu zerbitzuan hartutako gaixotasun edo zerbitzuan izandako istripu profesionalengatiko lesioek edo patologiek zerbitzua aldi baterako emateko ezintasuna

dakarten kasuetarako, batik bat polizia-zerbitzuan edo polizia-eginkizunetan gertatutako heriotza-kasuetarako edo polizia-zerbitzuan nahiz polizia-eginkizunetan gertatutako ezintasun-kasuetatik eratorritako nahitaezko erretiro-kasuetarako, agente jardulearen merezimenduak ebaluatzeari erreparatu beharrik gabe.

Legearen aldaketak ere kontuan hartu behar ditu adinean gora egiteak edota gaitasun zehatzen ustekabeko galerak polizia-eginkizunen jardun arrunta burutzeko ekar dizaketen murrizketak, hain zuzen ere gaur egun Ertzaintzako lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean jasota daudenak.

Udaltzaingoei dagokienez, Ertzaintzaren lanbide-egituraketaren baliokidea den lanbide-egituraketa bat aurreikusi beharra dago. Horretarako, udaltzaingoetako buruzagitzei dagozkien kategoriak zehaztu behar dira, kidegoa eratzten duten kide-kopurua edo udalerrriaren herritar-kopurua aintzat hartuta. Era berean, aguazilen eta mugikortsuaren-ajenteen figurak ere arautu behar dira.

LAUGARRENA.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Aurreproiektuko araua onesteak Euskal Herriko Poliziari Buruzko Legea aldatzea ekarriko du, baita lege horren aurka doazen lerrun bereko edo beheragoko lerruneko arau guztiak ere.

BOSGARRENA.- Aurrekontuan izango duen eragina.

Oroitza ekonomikoa egingo da, espedienteen jasoko dena. Oroitza horretan aurreproiektuaren kostua zehaztuko da, dagokion gastua zehaztuz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Aurrekontuetan izango duen eragina adieraziz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen (8/2003 Legea, abenduaren 22koa) 10.3 artikuluan aurreikusitakoa betez.

SEIGARRENA.- Manuzko izapideak eta txostenak.

1.- Lege-aurreproiektuaren testuaren edukia Agindu honetan zehaztutakoarekin bat etorriko da, eta, horretarako, erdietsi nahi diren xedeetara hobeto egokitzen diren aukerak baliatuko ditu. Hala badagokio, entzunaldian eta eskatutako txostenetan jasotako iradokizunak kontuan hartuko dira aurreikusitako arauaren zuzentasuna eta legezotasuna bermatzeko.

2.- Xedapen Orokorrak egiteko jarraibideak onartzen dituen 2010eko abenduaren 28ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiarekin bat etorritik, Agindu hau <http://elkarlan.jakina/webguneak/legesarea>. ezagutza partekatuko lankidetzaren-gunean argitaratuko da.

Hasiera batean, egoki edo beharrezkotzat jotzen da honako izapide hauek gauzatzea eta txosten hauek eskatzea:

A.- Hasierako azterlanak.

B.- Hasiera-agindua.

C.- Lege-proiektuaren testua prestatzea.

D.- Sailaren izapideak:

- ›Saileko aholkularitza juridikoaren txostena
- ›Oroitza ekonomikoa
- ›Genero-eraginaren ebaluazioa
- ›Administrazio-zamak murrizteari buruzko txostena
- ›Prozedura-oroitza
- ›Onespen-agindua

E.- Negoziazioa, txostenak eta entzunaldiak:

- ›Eusko Jaurlaritzako Sail guztiei kontsultatzea eta entzunaldia ematea
- ›Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei nahiz EUDELI kontsultatzea eta entzunaldia ematea
- ›Ertzaintzaren negoziazio-mahaia
- ›Ertzaintzaren Kontseiluaren txostena
- ›Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordearen txostena
- ›Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena
- ›DACIMAREN txostena
- ›Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena
- ›EMAKUNDEren txostena (otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2. artikulua, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa)
- ›Jendaurrean jartzea
- ›Bestelako interesdunei entzunaldia ematea. Sindikatuak

F.- Manuzko txostenak eta entzunaldiak:

- ›Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena
- ›Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren txostena

Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari txostena eskatu aurretik oroitza ekonomikoa eta prozedurari buruzko oroitza laburra egingo dira, espedientean jasoko direnak.

ZAZPIGARRENA.- Idazketa-sistema

Euskararen erabilera arautzeko oinarrizko Legearen (10/1982, azaroaren 24koa) 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko erabiliko den sistema itzulpena izango da, Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) egindako itzulpena.

SEGURTASUN SAILBURUA
ESTEFANÍA BELTRÁN DE HEREDIA ARRONIZ